

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maitxo Egilegor Portugal

*Errenteria,
Gipuzkoa
(1942)*

Aurkibidea



Biografia



Errenteria-Oreretak
Oiartzunekin muga egiten
duen lekutik gertu jaio zen,
Santa Engrazi izeneko
baserrian, denek "Arkaitza"
izenaz ezagutzen badute ere.
Ama Arkaitza bertakoa zuen
eta aita, berriz, Astabixkar
baserrikoa. Baserriko lanetan
aritzeaz gain, aita
Aizpitarteko kobazuloetatik
gertu zegoen zentrolean
egiten zuen lan. Inguru
hartako beste umeak bezala,
Aizatera joaten zen eskolara
Maitxo. Oiartzundik joaten
zitzairen maistra, Enkarna.
Beste baserrietan bezalaxe,
umetatik hasi zen Maitxo
baserriko lanetan. Esnea eta
fruta saltzen zuten kalera.
Noizean behin jaisten ziren
kalera enkargutara eta
eguneroko esnea Trabalekura
eramaten zuten handik
esneketariak jaso zezan.
Hamahiru urterekin utzi zuen
eskola eta hemezortzirekin
Txikierdin hasi zen lanean:
auzoko taberna zen, garai
hartan oso ezaguna igandero
dantzaldia izaten baitzen
bertan; inguruko herrietako
gazteak biltzen ziren han. Lau
urtez aritu zen han lanean.
Auzoko Iturralde etxeko Luis
Elizegi Zapiraineekin ezkondu
zen. Lau seme-alaba izan
zituzten. Perurenako Bentan
bizi izan dira.

Zintak

ERR-039

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-06-02
- **Iraupena:** 100 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

ERR-041

- **Proiektua:** Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Data:** 2009-06-10
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Txikitan, Erreterriako Aitzarte landa-eskolara

- **Erref:** ERR-039/002
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:02:16. **Bukatu:** 00:06:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Baserri inguruan zegoen eskola batera joan zen Maitxo txikitan. Aitzate esaten omen zioten eskola hari. Landa-eskola omen zen, inguruko baserrietako haur guztiak bertara joaten baitziren. Hala ere, eskola ordutatik kanpo baserrian egiten zuen lan Maitxok, gurasoei laguntzen. Enkarna izeneko oiartzuarra zuten irakasle, eskolak goizez bakarrik ematen zituen, bederatzieta hasi eta eguerdiko ordu bata arte, nonbait hor.</p>

Transkripzioa

-Zer zea, nesketan zaharrena, edo?

-Ez. Bi neska gea lehenenguak.

-Normalean, hola, neska zaharrenari edo tokatzen zitzaion lan asko itea, baserrian...

-Ba, ba ez pentsatu ba, e! Alderantziz. Ni geyo iña izaten naiz. Zaharrena jun zan ikasketak ittea're lehengusu baten etxea, Ugaldetxoa jun zan, eta geo handikan jutun zian mojeta, Oiartzuna, eskola, eta ni etxian. Eta guk ganeukan eskola bat hor, baserri inguruan, Aizate esaten ziyotena, eta hara jutun giñan hor inguru hortako ume gehinak eskolara. Eta etxean gañeko lana itten. Baserriyan gurasoei launtzen.

-Aizate hori, etxe bat o baserri bat edo da, o zen ez?

-Bai, bai, bai... Eta uain ere, bueno, uain ardik eta hola ibiltzen dittuzte, baiñon han dago, zutik dago. Ta aldameneko baserri batekua da.

-Eta zenek ematen zun hor eskola edo...

-Ba, e... Aurretikan, gue aurretikan, hor bertako amona batek. Eta gero bere iloba bat Oiartzundik etortzen zan /etortzezan/. Bai. Bi ahizpa. Normalian bat etortzen zan /etortzezan/ ya gehinin, biño bea gaixotu o ezin zunian o beste ahizpa etortzen zan /etortzezan/. Ta hoik zian Oiartzungo 'Amurriyanakuk' eo esaten ziotenak.

-'Amurriyanakuk'?

-Bai.

-Amurraitikan etorriko da, noski...

-Ez dakit /eztakit/ zergatik esaten ziyoten. Amurriyanak esaten ziyoten. Hoik taberna eukittu zuten han, uain dago han elektrodomestiko'ro holako bat dago, e... plazan, Oiartzungo plazan, ya Ugaldetxoa aldea abiatzen za /abitzeza/ eta eskubita dagon zea hartantxen zan.

-Zure maistra zein izan zan?
 -Ba Enkarna zun izena.
 -Enkarna.
 -Bai.
 -Ta, Enkarna hor bizi zan, esan dezun toki hortan?
 -Bai, bai, hoi bazian ez dakit /etakit/, lau'ro ahizpa ero bost o bazian.
 -Orduan egunero Aitzateraino joaten zen?
 -Bai, bai, oinez juten zen /jutezen/, eta goiz partian bakarrik ematen zun /ematezun/. Goizian beatzitaitan... ez dakit /eztakit/, ordu bata edo hola izaten gendun /izategendun/. Ta arratsaldian ez zan etortzen ta ez giñan juten. Ta egualdi txarra hola tokatzen zanian'e /tokatzezanian'e/, etorri be geldittu izandu da, eta orduan jo(a)ten giñanak jolasten giñan eta geo etxea.
 -Eta hor, zer zen, etxe hortan o baserri hortan gela bat prestatuta edo...
 -Bai, azpian san genezake, zan ikullu bat bezela, ez? Ta gero eskaillera batzu zittuen gora, ta goiko plantan dena sala haundi bat zan, atzian bazan, bai, gela bat, sukaldia ta bazauden, ez dakit /takit/, noizpait'e... Eta orduan, banko batzuk egoten zian /eotezian/, alderdi batian eoten giñan neskak eta beste alderdiyan mutillak, egoten giñan /eotegiñan/.
 -Maistra beakin.
 -Bai, bai, bai, bai, maistra beakin. Bat, denantzako.
 -Eta zer zinituzten, zuen pupitreak eta mahaiaik o nola...?
 -Bankuak. Ta aurrian zuten ba idazteko, eta geo baita're, ordun ez zan /etzan/ izaten rotuladore ta boligrafo... plumakin! Tintero batzuk jarri eta bazter guziyak zikindu igual ingo genittun, baiño haikin aitzen giñan. Bakoitza bee... zeak izaten genittun.
 -Eta, koadernoa-edo erabiliko zenuten...
 -E... Kuadernuak bai, erabiltzen genittun, baiño kuadernuak biño gehio, pizarrak ibiltzen zian /ibiltzezian/ orduan. Pizarra, pizarrilluak, eta orduan igual jartzen zizkiguten /jartzezizkiguten/ problema batzuk tableruan o zeatu ta handikan atera, biño pizarrakin itten genun gehienbat lana guk. Bai, bai, kuadernuak erabiltzen genittun, diktado itteko eta holako gauzak itteko, ta kopiaitzeko-eta, ibiltzen genittun.
 -Eta bazeon arbelarik o pizarrarik hor paretean?
 -Bai, hori bai. Bazan.
 -Eta gero gurutzeren bat edo
 -Bai, hoi bai. Hoi bai. Bai.

2. Eskolan irakurtzen, idazten, oinarritzko eragiketak egiten eta dotrina ikasi

- **Erref:** ERR-039/003
- **Iraupena:** 0:06:16. **Hasi:** 00:06:38. **Bukatu:** 00:12:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Maitxok irakurtzen, idazten, oinarritzko eragiketak egiten eta dotrina ikasi zituen eskolan. Irakurri, gazteleraz egin izan zuten beti, ezer gutxi ulertzen bazuten ere. Eskolako materiala bertan geratzen zen beti; ez zegoen etxera eramaterik. Ezagutza mailaren baitan taldekatzen ziren ikasleak eta ez

adinaren arabera. Eskolara joatea derrigorrezkoa ez izateak ikasten zuten eta ez zutenen arteko aldea areagotzen zuen, Maitxoren ustez. Amak interes berezia izan zuen bere seme-alabak eskolara joan zitezen, eta ahalegintzen zen horretan. Aitak, baserrian aritzeaz gain, etxetik kanpo ere egiten zuen lan, eta horrek lagundu zien Maitxo eta anai-arrebei eskolara joateko tarte gehiago hartzen.

3. Baserriko lanetan jo eta ke, Txikitan hasi eta ezkondu arte

- **Erref:** ERR-039/004
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 00:12:54. **Bukatu:** 00:17:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Baserriko lanetan laguntzen goiz hasi zen Maitxo, bospasei urterekin eskolan hasi orduko. Hala ere, eta jostailurik ez izan arren, hartzen omen zuten jostaketarako astirik, gurasoek atsedean hartu bitartean. Kaniketan aritzeko, esaterako, haritzaren "kuskuiluekin" jostatzen omen ziren, eta kromoekin ere aritzen zirela gogoan du Maitxok.

4. Amonak oso bizitza gogorra

- **Erref:** ERR-039/005
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:17:23. **Bukatu:** 00:21:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Alarguntasuna

Laburpena:

Arkaitza baserrian jaioa da Maitxo, eta baserri bereko alabak ziren ama eta amona ere. Maitxok amona ezagutu zuen; amaren ama. Oso bizitza gogorra izandako emakumea: bitan alargundua, semea gerran galdu zuen eta bakar-bakarrik atera behar izan zuen familia aurrera.

5. Aita zentral hidraulikoko langile

- **Erref:** ERR-039/006
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:23:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Maitxoren aitak Aizpitarteko kobazuloetatik gertu zegoen zentrolean egiten zuen lan. Artikutzatik behera zetorren uraren indarra probestuz Donostia eta inguruak elektrizitatez ornitzeaz arduratzen zen zentrala.

6. Baserriko produktuek estimazio handia kalean

- **Erref:** ERR-039/007
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:23:53. **Bukatu:** 00:27:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Maitxok gogoan du baserriko produktuek zein estimazio handia izaten zuten kaletarren artean. Arrautzak, untxiak eta oilaskoak saltzen omen zituzten gehien.

Transkripzioa

-Ta zuek ere, pentsatzen det, oinez beti, ezta?

-Bai, bai, bai. Beti oinez.

-Eskolara edo kalera...

-Eskolara, eskola nahiko alde itten zitzaigun /ittezizaigun/ baiño Oiartzuna joten giñanin'e Errenteira etortzen giñanian ere berdin. Oinez. Beti oiñez. Bai, bai.

-Eta bazenuten ohittura saltzeko baserriko gauzak-edo saltzea-edo jeisten zen ama...

-E... Bai, bai. Orduan, gauz bat izaten zan /izatezan/ oain ez zana /etzana/ ez, ordun baserriko gauzak izugarrizko estimaziyua izaten zun /izatezun/. Oain ere beharba bai, baiñon oain aukera gehio dago. Garai haitan ez zan /etzan/ ez... arrautzan granjikan ez zagon /etzegon/. Ta ordun, arrautzak, eskaka! Bai, bai. Ta gañea arrautzak ahal zan guziya jaso itten zen /ittezen/ ba asteburuan kalea joteko eta, ba halakoi ta holakoi eman berra eta bai, saldu eitten zen /eittezen/. Ta hor bada esaera bat: "baserritarrak, osasuna eman ta gaitza ekarri", esaten zana /esatezana/. Bai, bai, bai, bai... Eta ollaxko ta hola, hazitzen zianak ere bai, harrapazka saltzen zian, konejuak ere bai. Bai, ni goatzen naiz, jun izandu naiz, Errenteiko lehengo merkatu [zaharra ez], gañea hor Xenpelarren eon izandu da, ni goatzen naiz, geo in zuten goyen, beste merkatua, uain itxi dana hori, uain berriz aldatu in dute. Ta horrea, goatzen naiz jun izandu ga konejuk eramatea. Ta saltzen zian. Ta gañea normalian izaten zien /izatezien/ erosten zutenak ba bertako harakinak, e! Eosi iten zittuzten ta geo beraiek saldu.

-Beraiek saldu...

-Bai. Oain, gauza hoi're aldatua dago. Uain ezin da zuzenian saldu mataera o betenayuan zeaikan gabe, ez ollaxko... Ezer ez. Ezer ez.

-Kontrol batzuk jarri dituzte...

-Baño... Bai... Bai... Bañon ordun zuzenian saltzen zan gauza. Hoi berriroko gauza da, ezin dala kontrolikan gabe saldu. Baño garai haitan, bueno, goatzen naiz... Kuebako gain hortan bazan etxe bat, geo ez dakit /takit/, su manta ero nola, erre in zan, bañon bizi zan gizonezko bat, solterua zan, ta gu juaten giñan harengana, ba, Trabalekukun parientia zan, eta jutun giñan harengana, ba, ogiya eamatea, Trabalekukuk enkarguk ematen bazittuzten harea eramatea, eta harek ematen zizkigun arrautzak Trabalekura eramateko. Bai, bai, jendia hola, saiatzen zen.

-Ordun, tarteka eramaten zenuten, ba hola, koneju batzuk, edo arrautz batzuk edo...

-Bai, baino hola kantidade haundiyak iten ere ez giñan aitzen.

-Ez...

-Bai, soberan daozte eta... Bai.

-Oseake tarteka izaten zan...

-Bai, bai, bai, bai. Arrautzana ya, hoi normalagoa zan ya hoi ya asteburutan batera edo bestea ya hor... Bai, bai, bai...

-Eta gauzatxo hoiek, baserriko gauzatxo hoiek nola eramaten zenituzten zuek saltzera?

-Bueno, Errenteira juten giñan, Errenteian'e izaten zittuen bata ta bestiai hola, baiñon parrokiya, ez hola zeara, merkatura ta... Bestela, bestela. O ezaunak edo... Bai, o eskatu itten ziyoten edo... Oiartzunea ere berdin... Bai...

7. Arkaitzatik Oiartzunera enkarguak egitera

- **Erref:** ERR-039/008
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:27:34. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Maitxo, haurra zelarik, askotan ibili zen enkarguak egiten, abereak hartu eta atzera eta aurrera. Oiartzunera joaten zen gehienbat: Altzibar auzora, Ugaldetxora... Errandonea ardandegira ere bidaia batzuk egina da. Izan ere, berari tokatzen baitzitzaion enkarguak egitera joatea, normalki, nahiz eta oso gogoko izan ez.

Transkripzioa

-Ta? Bai Oiartzunea edo bai Errenteira ez?

-Bai. Bai. Enkarguta normalian Oiartzunea juten nitzen, ni asko ibiliya naiz enkargutan, aberiakin. Aberiakin juten giñan enkarguta, aberia saskiyakin jarri eta astian behin, gutxineko, eta enkarguak eta, o ganaduantzako pensua ekarri behar bazan, eta atzea ta aurea ibiltzen nitzan, baiñon gehienbat Oiartzuna. Igual Ualdetxoa, Altzibarren ere eoten zan e, pentsu almazen bat, eta ba pentsua ekarriz, ba bertatikan enkarguak hartu, o Oiartzuna, askotan ere, enkarguak, eta geo ardua ere ekartzen genun garrafoitan, ta juten giñan Errandonea o, bazan hor, ardo almazen bat eukitzen zutena Oiartzunen, hor ibiltzen giñan batea ta bestea. Bai...

-Eta, enkarguetara esan dezu zu juten zinala askotan...

-Bai, gehienin neetzako izaten zan lana hori. Gehienian bai. Neetzat izaten zan /izatezan/.

-Eta, ze izaten zan lan nekeza edo kalea jute horrek bazun bere... Ba jendia ikusi, gauzak erosi, o...

-Ba ez pentsatu, e!

-Pixka bat atea baserritik...

- Ez pentsatu, e! Ez pentsatu. Geo, neguan, egualdi txarra zalako, udaran berriz zenbait lekutan sekulako beroaldiak hartu ber izaten zian /izatezian/ eta ezdakit. Ez zidan /etzian/ iñorrek txadik kentzen! Ez...

8. Mezetara Oiartzunera baina dotrina ikastera Erreteriarra

- **Erref:** ERR-039/009
- **Iraupena:** 0:05:33. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:34:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

Mezetara joateko gertuago zuten Oiartzungo eliza Erreterriakoa baino. Arkaitza baserria Erreterriako lurretan egonik, ordea, Erreterriako parrokiara joan behar izan zuten dotrina ikastera. Oiartzungo eliza gertuago izanagatik ere, goizeko lau eta erdiak aldera jaiki behar izaten zuten igandetako lehen mezara iristeko.

9. Mezetara joatea derrigorra zen

- **Erref:** ERR-039/010
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:34:43. **Bukatu:** 00:38:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Maitxok gogoan du gaizki ikusia zegoela mezara berandu joatea, eta apaizak latinez esaten zuela meza, herriari bizkarra emanda. Mezara joatea, derrigorra zen orduan, eta gurasoek joatera behartzen zituzten.

10. Emakumeak ez ziren tabernara sartzen

- **Erref:** ERR-039/011
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:38:25. **Bukatu:** 00:42:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Aisia » Taberna giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Bera gaztea zela, oso gaizki ikusia zegoela emakumeak tabernara edo sagardotegira sartzea. Horregatik, harrituta geratu zen behin, Aranora joan eta hango emakumeak herriko tabernan atzera eta aurrera ikusi zituenean.

11. Sagardoa egiteko dolarea etxean

- **Erref:** ERR-039/012
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:42:08. **Bukatu:** 00:44:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Maitxoren aitak dolarea eraiki eta sagastiak landatu omen zituen etxean, sagardoa egin ahal izateko. Pitarra egiten omen zuten: erdia sagar zukua eta

beste erdia ura. Amonak, gainera, ez zuen urik edaten, haren lehendabiziko senarra mendiko iturri batetik ura edan eta tifusak jota hil zela pentsatzen baitzuen.

12. Ordukoak, egungoak baino negu hotzagoak

- **Erref:** ERR-039/013
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:44:27. **Bukatu:** 00:47:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Egungoak baino hotzagoak oroitzen ditu Maitxok txikia zeneko neguak. 1956koa gogoratzen du bereziki gogorra, izan ere, otsaila osoan zehar iraun baitzuen ormak. Oiloen arrautzak jelatu eta lehertzerainoko hotza izan omen zuten urte hartan.

13. Igandetan bazkaltzeko garbantzuk

- **Erref:** ERR-039/014
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 00:47:07. **Bukatu:** 00:51:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Igandeak bereziak izaten ziren Maitxo haurra zen garaian. Meza eta gero, erosketa edo enkarguak hartu eta baserrira itzultzen ziren, inguruko baserrietako auzoekin, berriketan. Hala ere, etxean egin beharren bat suertatzen bazen, berdin-berdin egiten zuten lan, jai eguna izan arren. Igandetan zein otordu izaten zituzten ere gogoan du Maitxok.

14. Arrantzaleak baserritara arrain saltzen

- **Erref:** ERR-039/015
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:51:23. **Bukatu:** 00:53:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Maitxoren izeba bati Oiartzungo Ugaldetxoaraino etortzen zitzaizkion arraina saltzera, eta izeba horrek, Trabaleku baserriko bateren baten bitartez bidaltzen zien arraina Arkaitzakoei. Bestalde, ongi gogoan du Maitxok gaztea zeneko otorduak nolakoak izaten ziren: babarruna noiznahi, tortillaren bat ondoren, eta postrea oso gutxitan, etxean garaian garaiko fruta asko izanagatik ere.

Transkripzioa

- Garai hartan arrai asko zeon. Kostako herritan-ta arrai asko harrapatzen

zuten. Asko. San Juanen...

-Bai. Antxoak ere uan biño uariyo ibiltzen zian ordun.

-Bai...

-Uain problemak die, biño ordun...

-Ordun ikaragarri zeon...

-Bai, bai... Ta gañea, arraiketai asko baserrita ta dena atetzen zian saltzea, e! Saskiyan hartu antxuak o txitxarruak o... Baiñon hoik bukatu zien.

-Ta alletzen zian, zuen [baserriaino?]

-Ez. Ez. Alletzen zian baiñon, Ualdetxon bizi zan izeba bat eta harek bialtzen zun, beraí bai etortzen zitzaion etxea, eta harek bialtzen zun Trabalekukuakin, igual, guentzako. Eta ogiyan billa juten giñanian harea, haik ekartzen zizkiguten ogiyak haraño, beak juten zianin esniakin, ogiyak ekartzen zizkiguten ta harek bialtzen baldin bazun arraiña, ba izaten gendun. Hola alletzen zan /alletzezan/. Bai.

-Bestela, esan dezu, astean zehar babarruna jaten zenutela asko...

-Gehienbat, bai.

-Gehienbat... Ta ze izaten zan, hola, plater bakarra? Osea, babarrun platerkada...

-Ez, ez. Nahi dunak bat edo bi, nahi zun bezela. Bai, bai, eta geo ondotikan beti zeozer izaten zan, o tortilla bat, edo zeozer izaten zan ondotikan'e. Geo postretan, ordun postreik ez zan /etzan/ erabiltzen. Etxian baldin bazan fruta, huraxen. Gainekon...

-Ta izaten zan, ez?

-Bai, bai, bai... Bueno, garaiak izaten zian /izatezian/ baita ere, ez? Sagar garaian, gereziya ere asko izaten gendun, pilla bat! Izaten gendun, eta gerezi garayian'e, nahiko gereziya, sagar garaian ya sagarra...

15. Elorria mizpirarekin txertatzen

- **Erref:** ERR-039/016
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:53:07. **Bukatu:** 00:53:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Maitxoren aitak baserri inguruko elorriak mizpirarekin txertatzen zituen, eta gaur egun Maitxoren anaia ibiltzen da horretan.

Transkripzioa

-Ta gero aranak, o muxikak...

-Bai. Muxika're erruz izaten zan.

-Ze ona...

-Attak bazun hortan... izugarrizko gogua izaten zun, ta bazittu, e... Han, belasuan, buelta guzian harkaitza dago. Ta harkaitz ixkiñetan harrapatzen zittun elorri guziyak txertatu itten zittun mizpirakin. Mizpira're pilla bat! Han xoxuak eta zea guziyak, denantzako izaten zan janariya. Ta uain aitzen da anaia baita're! Bai, Bai.

-Txertaketak eta...

-Bai, uain ere bire hertzian-ta ikusi dittun /ikusiittun/ elorri guziyak txertatzen aittua dago, mizpirakin eta, gereziyak eta...

-Pues ez dago asko dakina hoi iten gaur egun, e!

-Ba harek... Oso ondo ateratzen zaizkiyo, e! Bai, bai...

16. Fruta-arbolak eta txoriak

- **Erref:** ERR-039/017
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:53:54. **Bukatu:** 00:55:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

Oso zaila izan da beti fruta-arbolak txoriengandik babestea eta gaur ere hala izaten jarraitzen duela dio Maitxok. Egun etxe inguruan gutxitan ikusten badu ere, txorietan eskinosoa du bereziki gogoan. Maitxoren hitzetan, "pizti" bihurtzen omen da eskinosoa frutaren aurrean.

Transkripzioa

-Oseake uain ere izango dezute fruta...

-Bai, baiñon uain fruta... Hemen bertan ere bai, e! Oso zaila da eskapatzen. Batez'e behian hor lehen txaga haundiya zegoen, ta hor ibiltzen zan hegazti asko, bai zozuak, billiaruak... Askok! Ta uain etxe onduan dauzkigu denak. Etxeko, hemen, balkoyian dagon huntza hortan'e, zozuak kabiya itten dittuzte /itteittuzte/.

-Tokiya behar...

-Tiestuan bertan, lehenguan esan niyon lñaxioi: bitu, goroldiyuak hartzen ai dia tiestuan ta hor ere kabiya itteko asmotan dabilta. E... Orduan, hemen bertan, uain ere aranak-eta asko dauzte. Pilla bat daukat ta ez dakit zoittuko dian, baiñon, baiño zoitzen hasten denian, bai billiarro, zozo, biño pezti bat, e! Eta hoi pentsatu hemen, ta han? Han, han, e... hemen ez dan zea ibiltzen han, iskiñusua, asko. Mendiko usuai eskiñosua saten yogu guk. Holakuak eta, bueno, frutatan pezti bat da.

17. Azeria eta azkonarra baserritarren etsai

- **Erref:** ERR-039/018
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:55:00. **Bukatu:** 00:58:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

Azeriek oiloak eta arkumeak eramaten omen zituzten, sarri samar. Hargatik, uxaldiak antolatzen omen ziren, eta halakoetan ohikoa izaten zen azeria tiroz botatzea. Maitxoren esanetan, egun, azeria babestua dagoenez, ezin da tiroz jo, baina baserri eta etxeetan azaltzen jarraitzen duela dio. Azkonarrak, bestalde, arto sailak ondatzen omen zituen. Maitxok gogoan du azkonarra harrapatzea lortzen zutenak, animalia akabatu eta baserriz baserri erakusten ibiltzen zirela gero, eta dirua ematen ziela jendeak, auzoari egindako mesedearen truk.

18. Gurasoei errespetu handia

- **Erref:** ERR-039/019

- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:58:42. **Bukatu:** 01:01:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

<p>Artazuriketak ez ditu Maitxok etxean egindakoak bakarrik ezagutu. Izan du auzo mailan egiten ziren artazuriketen berri ere, baina eurek ez omen zuten halakoetan sekula parte hartu, haur ziren garairako ez zelako ia halakorik egiten. Gurasoek errietarik ematen ote zieten galdetuta, motiborik ematen ez zietela erantzun du Maitxok. Ez du ulertzen egungo hainbat haurren portaera eskasa nola den posible, baina inor jotzekotan, gurasoak jotzen ditu halako jokaeren errudun.</p>

Transkripzioa

-Artazuriketan eta...

-Bai...

-Ibilita zaudete?

-Aratozuriketan baiñon etxekua bakarrik izaten... Ni etxetik kanpo ez naiz joan izandu iñoa, baño garai batin iten omen zien. Hoi, gure ama, gaztetako garaiyan, igual, ba arto zuritzea auzokora jun eta holako zeak, baiñon ni hortaz ez naiz... Ez, etxekuak bai. Etxekuak. Eta gañea, atta askotan, jun gora ta, benga, bestii beste zeozer igual eta... Igual juaten giñan, benga, in beharra daozte ta jun pixka bat, baño ez [da] hainbestaño... Arduratzen ez giñen.

-Etxian, txikiyak ziñetela-eta, pixkat gurasuak bere disziplina jartzeko, edo erakusteko, edo... Haserratu eingo zian o... Nola goatzen dituzu / goatzeituzu/ gurasuak o... Zigor txikiyak jartzen zittuzten edo...

-Ez dakit. Ez det uste motiboik jartzen geniyonikan'e.

-Oso txintxuak ziñaten zuek...

-Bai. Hor telebistan eoten naiz ni beira uain, "nanny" ro nola deitzen da? Nik esaten det, 'biño posible da umiak hola ikustia?' Ta gelditua naiz, gelditzen naiz harrittuta. Bai. Nik esaten non: 'Jo! Guriak holakuk izan bazian zeñek in ber zun hemen agantatu?' Ez, ez...

-Bai, baño ematen du askotan gurasuak ez dakitela zer egin behar / zeinber/ duten...

-Ikusten da!

-Baiña, orduan, ni [guras] guen etxian, ez? Gu txikiyak giñanian, eta ezta ere neria nittunian ez det /eztet/ holako problemaik izan izandu, e! Ez, ez, ez... Ni harrittu itten naiz. Askotan pentsatzen det: 'posible da hori, edo ze?' Ez dakit. Ez dakit.

-Hor bai ikusten dala errespetua ez dagola...

-Ez, ez, ez... Eta gañea, eztakit. Hor nik uste det /ustet/, zaharrena, bigarrena, hirugarrena... Eske zaharrenetik hasi ber da edukatzen! Eta ez diyetela... Beraien errua dala iruitzen zait nei! Ez umiana! Beraiena! Hasieratik hasi bihar dute, hor, lanian! Ez dakit. Guk ez degu /eztegu/ holako zeaik izan izandu. Ez lehen eta ez oain, eta... ni senidiakin denakin ondo izaten naiz eta...

19. 'Pernando amezketarra'ren pasadizoak

- **Erref:** ERR-039/020

- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:01:07. **Bukatu:** 01:03:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

'Pernando amezketarra' ren pasadizoak kontatzen zizkieten gurasoek Maitxo eta bere anai-arrebei. Maitxoren aitak tarteka bertsoak kantatzen omen zizkien 'Basarri', 'Zepai' eta garaiko zenbait bertsolarien liburuetatik irakurrita. Baina gutxitan izaten omen zen halakorik, Maitxok esaten duenez, garai hartan lanak ez baitzion aisiari tarterik uzten.

Transkripzioa

-Ttikiyak ziñatela goguan dakazu ipuiñak edo halakorik kontatzen zizkizuten etxian, ipuiñak edo hola, kontraerak edo...

-Bai, zeanak, Perrandonak, askotan!

-Zeiñenak?

-Perrando Amezketarranak. Horrenak bai. Ta badet liburuxka uain ere umiai eta hola zeatu... Uain ya ez, baiño txikiyak zianin gustatzen zitzaiyoten. Eta han ere bai, bai Perrando Amezketarranak, holako ta halako ta holako batzuk bai eta geo atta, aldizka, aitzen zan /aitzezan/ liburua hartu ta berso batzuk zeatzen, eta... Hola, umiak giñanian, baiñon... Ez, gurasoak ere beti lana ta lana eta ez guek gurasuakin ta ez beraiek umiakin, ez det uste asko...

-Baño, tarteka, Pernando Amezketarran kontuk, garai bateko kontuak, edo pasadizuak o...

-Bai, holako batzuk bai, izaten zian, baiñon ez asko ere, e!

-Ta ze liburu zeukan ba aitak? Bertsoana esan dezu...

-Ba bazitun Baserrina ta Zepai, eta hor garai bateko... Bai.

-Liburu zaharrak izango zian, ezta?

-Bai, bai, bai, bai.

-Eta, kantatu iten zitun, bertsoak?

-Irakurritz kantatzen zun, e! Beak memoriz, hola, ez zittun /etzittun/... Ez zittun asko...

-Eta ze eoten ziñaten zuek, entzuten?

-Guk entzuten. Ta esan iten geniyon gañea, 'benga, atta, bersuak irakurri, benga, kantatu!' ta... Besteik nola ez giñun izaten, ordun irratiyikan ere ez gendun, pentsatu!

-Ta kantatzen zittun...

-Bai. Ta gustoa entzuten genittun, baiñon gutxitan izaten zan /izatezan/ hori. Oso gutxitan. Eske orduan, lana ta lana ta lana... Ezkondu zanian ere zentraleko lana, eta geo, etxea etorritakuan, ba txondar itten eta mendiyan eta... Betiko lana.

20. Egur-ikatz egitera mendira

- **Erref:** ERR-039/021
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:03:14. **Bukatu:** 01:04:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Maitxoren aita basoan lanean ibilitakoa zen, txondorrak eraiki eta egur-ikatzak egiten. Senarra ere halako lanetan ibilia omen da, gaztetan. Lan hura zertan zetzan azaltzen digu Maitxok.

Transkripzioa

-Betiko lana. Hua're... Hura're izandu zan. Uain ez da itten, baño uain mendira juten geanian, hola, igual, paudi batian o pasatzen gea ta txondar zulok han eoten dia. Kusten [dittut]... Bitu-bitu, hemen'e baten batek madarikatu zun hemen txondarra itten!

-Ta zure aita egiten zun...

-Bai, bai, eta senarrak ere bai, e!

-A, baita, e?

-Bai. Aittu izandu da hura ere. Gaztetan basuan aittuk izaten dia hoik, zean, lanian. Eta beak esaten du, bueno, orduan manduakin eta bizkarkata, txondarra in ber zan lekura egurra karraitzen. Bai, bai.

-Ta iten zan, egur-ikatzak ateratzen zan handik, ezta?

-Bai, bai, bai, bai...

-Ta izaten zan egun batzutako lana, hori...

-Bai. Bai. Ta prepaatu. Egurra pillatu behar da, eta geo ya pilla itten dezunian /ittezunian/ ta su maten zaionian'e /matezaionian'e/ geo're errepetu ein ber zayo, han eon behar dute gau ta eun. Ta geo ya intakuan, berriz, zakua bete, handikan eraman, eaman behar zan lekura... Bai. Nahiko lan gogorra.

-Ta ze iten zuten, hola, batzun artian? Baserritar batzun artian o bea...

-Ez, basuan aitzen zan jendiak moldatzen zittun hoiek, e! Basuan aitzen zianak izaten zian: bat izango zan nagusi bezela ta beakin [zaizkiyenak] beste langilliak o pioyak eta been artian itten zittuzten.

21. Su baxua eta "ekonomika"

- **Erref:** ERR-039/022
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:04:43. **Bukatu:** 01:06:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Su baxuan kuzinatzetik su "ekonomika"rekin aritzera igaro ziren Arkaitza baserrian, eta batetik besterako aldea handia zela dio. Su baxuan jartzen zen eltzeak kearekin belztuta bukatzen omen zuen, eta "ekonomikak", aldiz, beste "txukundade" bat ekarri zuen sukaldeetara. Ekonomikak, gainera, labea ere bazuen.</p>

Transkripzioa

-Zuk su baxua ezautu dezu baserrian?

-Bai. Bai. Nere goguan jarriya izaten da... Ekonomika esaten geniyon. Sua. Bai, goatzen naiz. Bai, bai.

-Baño, ekonomika beti ezagutu dezu zuk ordun baserriyan. Edo aurretik...

-Ez, ez. Aurretik sua baxua bakarrik. Geo, noiz jarri zuten ekonomika

goatzen naiz. Ta nik orduko hamar-hamabi urte izango nittun. Goatzen naiz.

-Ta su baju hartan, ingo zan, prepatuko zan...

-Bai, bai, bai...

-Bazkariak edo...

-Ta hua kendu ta jarri zutenian su ekonomika, ba ez dakit /eztakit/... Su ekonomikatikan butanokin itten den suañoکو aldia billatu genun guk. Beste garbitasun bat; beste txukundade bat... Eske han jartzen dezu /jartzezu/ neskamia'ro esaten ziyoten halako zea bat, txintxilikan, tximenitikan goiti behera, geo harek kanpana haundi bat eamaten zun... Hoi dena goatzen naiz ni. Eta geo klaro, han eltzia jartzen dezu /jartzezu/ suatan, eta ki harrek beak dena itten zun eltzia bea dena beltz-beltz in. Enkanbio, enkanbio, geo ekonomikoa o zea jarri zenian, ba beste garbitasun bat, beste txukundade bat. Labia're bazun, eta harek ez zuna /etzuna/, izuarritzko aurrerapena iruittu zizaigun. Eta geo handikan, ya, uain, bateko butano, besteko eletrika, besteko zea, ya, ta hala're denak eskas ttugu!

22. Argindarra ez zen Arkaitzara iristen

- **Erref:** ERR-039/023
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 01:06:12. **Bukatu:** 01:09:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Hamabost-hogei urte bitarte izango zituen Maitxok argia Arkaitzara iritsi zenean. Ordura arte kandlekin, petrolioarekin edo karburoarekin konpondu ziren. Maitxok behin baino gehiagotan pentsatu izan du, ordea, haur zirelarik hartzen zuten arriskuaz, esaterako, baserriko ganbara belar lehorrez gainezka eduki eta hara kandela bat eskutan igotzen zirenean. Izan ere, amak kontatzen omen zien, eurak haur zirela, kandela mesanotxearen gainean piztuta ahaztu, lo hartu, eta sehaskak su hartu izan ziola. Bestalde, neguan, lehenago iluntzen duela, batetik, eta argindarrik ez zela, bestetik, goizago oheratzen zirela oroitzen du Maitxok.</p>

23. Asteburutan Txikierdiko tabernan lanean

- **Erref:** ERR-039/024
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 01:09:39. **Bukatu:** 01:13:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Hemezortzi urte inguru zituela, Txikierdiko tabernan aritu zen lanean. Goizeko seietako meza eta gero autoan eramaten omen zuten, eta bertan bilerak egiten zirenez, iluntzera arte aritzen zen lanean. Maitxok gogoan du basoerdiak eta freskagarriak edaten zirela gehien Txikierdiko bileretan.

24. Senargaiarekin egoteko lana utzi

- **Erref:** ERR-039/025
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:13:42. **Bukatu:** 01:16:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak

Laburpena:

Maitxo lanean hasi zenerako, gerora senar izango zuen gizona ezagutzen zuen jada. Hala ere, astean zehar ia ezin zuten elkar ikusi eta asteburutan lanean segituz gero, aste osoa igarotzen zen elkarren berri jakin gabe. Txikiardiko tabernan lanean lau urte egin eta utzi egin zuen Maritxok, azkenerako.

25. "Lehen apaizaren eta egun medikuaren mende bizi gara"

- **Erref:** ERR-039/026
- **Iraupena:** 0:05:06. **Hasi:** 01:16:28. **Bukatu:** 01:21:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak

Laburpena:

Senargaiarekin hasi eta inguruan sumatzen zituen aholku eta gomendioei buruz galdetuta, elkarriketa egin zitzaion garaitsu horretan Maitxok Jose Luis Gorrotxategi bertsolariari entzundako arrazoi bat etorri zaio gogora: "Lehen apaizaren eta egun medikuaren mende bizi gara." Eta Maitxoren ustez, egia borobila da hori. Izan ere, Maitxok aitortzen du, gazte garaian konfesatu beharraren eta apaizaren mehatxuaren beldur bizi izan zirela. Gaur egun ez da harritzen elizaren gainbehera ikusita, eta eliz-gizonei egozten die, gauzak diren bezala ez erakutsi izana.

26. "Brodatzeta beti gustatu izan zait"

- **Erref:** ERR-039/027
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:21:34. **Bukatu:** 01:23:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Ezkon-bizitzari ekiteko prestatu zuen dotetik izararen bat edo beste ba omen du estreinatu gabe. Gerora ere, brodatzen aritu omen da, betitik gustatu izan zaiolako, batetik, eta bestetik, eskolaz kanpoko klasetan ikasi zuelako, mojekin.

27. Arkaitzan erlauntzak daude egun

- **Erref:** ERR-039/030

- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:28:54. **Bukatu:** 01:30:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Arkaitza baserrian, Maitxoren jaiotetxean, erlauntzak zituen anaiak elkarrizketa garaian. Maitxo oso gustura itzultzen da jaiotetxera eta erle artean lanean aritzeko batere arazorik ez duenez, han ibiltzen da, ezitia egin dezaten behar den hartan lagunduz.

28. Errenteriakoa baina oiartzuarren kutsua hizkeran

- **Erref:** ERR-039/032
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 01:32:04. **Bukatu:** 01:35:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Maitxori eta bere anai-arrebei beti esan izan diete oiartzuarren kutsua dutela hizkeran. Oiartzuarrek, aldiz, sumatzen zuten alderik euren eta Arkaitzakoek egiten zuten hizkeraren artean.

29. 'Berria'ko harpidedun

- **Erref:** ERR-039/033
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:35:07. **Bukatu:** 01:37:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Euskara batua ulertzeko batere arazorik ez du Maitxok; izan ere, 'Berria' egunkariko harpidedun dira etxean 'Egunkaria'koak ere baziren), eta euskal prentsa irakurtzen du. Hasieran kosta egin zitzaiola dio, baina behin ohitu eta gero, ez du erdarazkoaren beharrik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com